

## AITA SANTUARI.<sup>1</sup>



¡Aita!

Euskalduna, eta ala, Berorren Santutasunaren semea, azkenekoa banaiz ere, lurrean auzpezturik musuz ta malkoz estaltzen dizkat oñak.

Berorren Santutasunak eta dituen seme guztiok ospatzen degu lenbiziko esan zuen Mezaren berrogei ta amar-garren urteurrena.

¡Meza!... ta ¡lenbiziko meza!

Ni ez naiz iñor au zér dan esateko; baña meza bat entzuten detanean, ontan arkitzen badira nere poz eta penak, esperanzak, eskerrak, erreguak, pensanezaket zerbait mez ori esatea zér izango dan, ta lenbiziko aldiz esatea. ¡O!... Nere buruak ez du ezagutzen au bezain gauza aundirik; ez ere nere biotzak aiñ maitagarririk, nola dan gizonak ¡Jesus! eskuetaratzea, mundu guztia salba dediñ Aita Betikoari eskeintzeko.

Berrogei ta amargarren urteurrena ¿zér da onen aldean? deus ez: Betikotasunari begira bizi danarentzat, denbora utsa da.

Alaz guziaz, denborak dakar egun pozgarri ura, datorren urteko lenbiziko eguna: orduan, Berorren Santutasunak Jesus gurutziltzatua alchatzen duenean, onek erregutuko du bere etsaiakgatik, Kalbarioan bezela esanaz: —¡Aita! barka zaiezu! ez dakite zér egiten duten!—

Laja bezait berriz eta berriz ere oñetan muñ ematen. Oetan, ezañañak ichirik, esaten dizkat itzik onenak!

ANTONIO ARZÁC.

Donostian. 1887-an.



(1) V. nota de la pág. 1.